

Funtsezko jarduerak

Funtsezko jardueretan produkzioaren aldean aplikazioaren diseinua sartuko genuke. Produktu fisikorik ez dugunez egingo, ekoiztu behar dugun bakarra aplikazioa izango zen. Gure enpresak zerbitzuak eskaintzen ditu, eta honen ondorioz arazoak konpontzeko jarduerak garrantzitsuenetakoak izango lirateke. Ezagutzaren gestioen oinarrituta gaude eta etengabeko prestakuntza ezinbestekoa dugu.

Aplikazio bat eskaintzen dugunez, plataforma edo sareko jarduerak ditugu nagusiki. Plataformaren gestioa ondo egitea dugu jarduera nagusi, hau etengabeko mantenua jasotzen du eta. Beste aldetik ere plataformaren promozionaketa egiten dugu, hau internet bidez beste pertsona batzuekin partekatzen dugu geroz eta jende gehiago ezagutzeko gure aplikazioa.

